

Ospakizun giroan banatu dira XXV. Martin Ugalde ipuin lehiaketako sariak

- Andoaingo Udalak 10-17 urteko gazteentzat zuzendutako ipuin lehiaketak hogeitabost urte betetzen ditu, eta 127 lan ipini dira lehian.
- Aiora Otamendi, Mikel Villar, Laiene Arteaga, Paula Martin, Iزارo Placencia, Ariane Rodriguez, Miren Nieves eta Aitziber Zubeldia izan dira 2021 urteko sarituak

Martin Ugaldereen jaiotzaren mendeurrena betetzen da 2021ean, baina ez da aurten ospatzen den efemeride bakarra, 10-17 urteko gazteentzat zuzenduriko ipuin lehiaketak 25 urte betetzen baititu. Edizio berezi hau behar bezala ospatzeko, Bastero Kulturguneko auditorio nagusian elkartu dira tokiko idazte gazteenak.

Andoaingo Udalak antolaturiko ipuin sariketa urtez urte hazten joan da, herriko eta eskualdeko erreferente nagusi bilakatu arte. 1997 urteaz geroztik, etenik gabe burutu da. Lehen edizioetan Martin Ugaldereen ohorezko presentziarekin gozatzeko aukera izaten zen, idazle gazteekin urtea joan eta urtea etorri solasean egiteko aukera izaten zuelarik. 2004tik aurrera, katea ez da eten, eta Ugalde familiako kideak lehiaketaren ohorezko gonbidatu izan dira, baita parte hartu duten lanen maila altuaren lekuko ere.

Basteroko ekitaldian parte hartu dute Ugaldereen familiako **Unai** eta **Ainara Ugaldek**, **Maidar Lainez** Andoaingo alkateak, **Txitxu Ruiz** Hezkuntza eta Kultura zinegotziak, bai eta 1997ko ipuin lehiaketan partaide eta saritu izandako **Joseba Ormazabalek** (irabazle A kategorian, 12-13 urte) eta streaming bidez konektatu den **Enara Otaegik** ere (irabazle B kategorian, 14-15 urte).

Edizio berezi honetan guztira 127 lan aurkeztu dira. A kategorian (10-11 urte) 34 lan, B kategorian (12-13 urte) 36 lan, C kategorian (14-15 urte) 25 lan, eta D kategorian (16-17 urte) 32 lan. Maidar Lainez alkateak “urte guzti hauetan lehiaketan izandako partaide kopuru handia” nabarmendu du, “belaunaldi ezberdinak batzen direlarik”. Txitxu Ruizek, epaimahaiaren buru gisa, poztasuna eta harrotasuna adierazi ditu “Andoainen idazle gazteen harrobi oparoa dugulako”.

Aurtengoa edizio berezia izan da, izan ere, oraingo honetan, parte-hartzaileek, kategoria bakoitzean Martin Ugaldereen testu baten ala aurretik lehiaketan irabazle aterako ipuin baten hasieratik abiatu behar izan dute euren kontaketa. Besteak beste, Euskal Idazleen Elkarteak ere sari bereziak banatu ditu.

Hauek dira sarituak:

A Kategoria – 10 eta 11 urte

1. SARIA	“Egiaren saria”	Aiora Otamendi Baltasar
2. SARIA	“Sorginaren urrea”	Mikel Villar Amores
FINALISTA	“Egiaren salbaketa”	Ane Arostegui Aranburu
FINALISTA	“Sorginaren urrea”	Inge Barreros Talavera

B Kategoria: 12 eta 13 urte

1. SARIA	“Besoaren truke”	Laiene Arteaga Eizagirre
2. SARIA	“Zentzurik gabe”	Paula Martin Bravo
FINALISTA	“Ospitaleko trajediak”	Nahia Ipinza Vidal
FINALISTA	“Ustekabeko bidaia”	Maren Aranburu Ugalde

C Kategoria : 14 eta 15 urte

1. SARIA	“Alleine”	Izaro Placencia Telleria
2. SARIA	“Herriko giro hori”	Ariane Rodriguez Muñoz
FINALISTA	“Txoriak bezala”	Lier Sarasola Fernandez
FINALISTA	“Ispiluko hiltzailea”	Jone Telleria Albistur

D Kategoria : 16 eta 17 urte

1. SARIA	“Herri baten sekretuak”	Miren Nieves Gomez
2. SARIA	“Ihesaren itzulera”	Aitziber Zubeldia Olasagasti
FINALISTA	“Zer?Orain nora amatxo?”	Sara Villalba Izagirre
FINALISTA	“Nire tokia aurkitu arte”	Naia Galindo
FINALISTA	“Hormak oihuka”	Aner Alkain Aguado

Los premios de la XXV edición del concurso de cuentos Martin Ugalde se han repartido en ambiente de festivo

- El concurso de cuentos organizado por el Ayuntamiento de Andoain para jóvenes de entre 10 a 17 años cumple veinticinco años y en 2021 se han puesto a concurso 127 obras.
- **Aiora Otamendi, Mikel Villar, Laiene Arteaga, Paula Martin, Izaro Placencia, Ariane Rodriguez, Miren Nieves y Aitziber Zubeldia** son los premiados de este año 2021

En 2021 se cumple el centenario del nacimiento de Martin Ugalde, pero no es la única efeméride que se celebra este año, ya que el concurso de cuentos dirigido a jóvenes de 10 a 17 años cumple 25 años. Para celebrar esta edición especial, los escritores locales más jóvenes se han reunido en el auditorio principal del centro cultural Bastero.

El certamen de cuentos organizado por el Ayuntamiento de Andoain ha ido creciendo año tras año hasta convertirse en el principal referente local y comarcal. Desde 1997 se ha desarrollado ininterrumpidamente. En las primeras ediciones se podía disfrutar con la presencia del protagonista, de Martín Ugalde, que solía charlar con las y los jóvenes escritores año tras año. Desde 2004, la cadena no se ha interrumpido y los miembros de la familia Ugalde han seguido siendo los invitados de honor del certamen, así como testigos del alto nivel de los trabajos que han participado en el concurso.

En el acto de Bastero han participado **Unai y Ainara Ugalde**, de la familia Ugalde; **Maidier Lainez**, alcaldesa de Andoain; **Txitxu Ruiz**, concejal de Educación y Cultura; así como las personas premiadas en la edición de 1997 **Joseba Ormazabal** (ganador en la categoría A, 12-13 años) y **Enara Otaegi** (ganadora en la categoría B, 14-15 años) que se ha conectado por streaming.

En esta edición especial se han presentado un total de 127 trabajos. 34 trabajos en la categoría A (10-11 años), 36 trabajos en la categoría B (12-13 años), 25 trabajos en la categoría C (14-15 años) y 32 trabajos en la categoría D (16-17 años). La alcaldesa Maidier Lainez ha destacado “el gran número de participantes que han pasado por el concurso durante todos estos años, en el que se unen ya diferentes generaciones”. Txitxu Ruiz, presidiendo el jurado, ha expresado su “satisfacción y orgullo por contar en Andoain con una cantera de jóvenes escritores y escritoras”.

La de este año ha sido una edición especial, ya que en esta ocasión las personas participantes han tenido que arrancar su relato desde el principio de un texto de Martin Ugalde o de un cuento que previamente había salido ganador en el

concurso. Entre otros, la Asociación de Escritores Vascos también ha entregado premios especiales.

Las personas premiadas son:

Categoría A – 10 y 11 años

1. SARIA	“Egiaren saria”	Aiora Otamendi Baltasar
2. SARIA	“Sorginaren urrea”	Mikel Villar Amores
FINALISTA	“Egiaren salbaketa”	Ane Arostegui Aranburu
FINALISTA	“Sorginaren urrea”	Inge Barreros Talavera

Categoría B: 12 y 13 años

1. SARIA	“Besoaren truke”	Laiene Arteaga Eizagirre
2. SARIA	“Zentzurik gabe”	Paula Martin Bravo
FINALISTA	“Ospitaleko trajediak”	Nahia Ipinza Vidal
FINALISTA	“Ustekabeko bidaia”	Maren Aranburu Ugalde

Categoría C: 14 y 15 años

1. SARIA	“Alleine”	Izaro Placencia Telleria
2. SARIA	“Herriko giro hori”	Ariane Rodriguez Muñoz
FINALISTA	“Txoriak bezala”	Lier Sarasola Fernandez
FINALISTA	“Ispiluko hiltzailea”	Jone Telleria Albistur

Categoría D: 16 y 17 años

1. SARIA	“Herri baten sekretuak”	Miren Nieves Gomez
2. SARIA	“Ihesaren itzulera”	Aitziber Zubeldia Olasagasti
FINALISTA	“Zer?Orain nora amatxo?”	Sara Villalba Izagirre
FINALISTA	“Nire tokia aurkitu arte”	Naia Galindo
FINALISTA	“Hormak oihuka”	Aner Alkain Aguado